BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

Zerbitzu-kontratua **Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora**	**Contrato de servicios.** **Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.**
Xedea: Ibaian bidaiariak garraiatzeko zerbitzua Txomin Agirre kaiaren eta Santiago hondartzaren artean kontratatzea **CPV: 60600000-4**	**Objeto:** Contratación del servicio de transporte fluvial de pasajeros/as entre el muelle Txomin Agirre y la playa de Santiago. **CPV: 60600000-4**
Prozedura irekia **Izapidea: arrunta**	**Procedimiento abierto** **Tramitación: ordinaria**

Zumaiako Udala

2025IKIE0019

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA **AURKIBIDEA**

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS ÍNDICE

I. Kontratuaren edukia

1.1. Kontratuaren xedea

1.2. Kontratuaren iraupena

2. Lanen deskribapena

3. Aurkeztu beharreko agiri teknikoak.

4. Kontratuaren prezioa.

I. Contenido del contrato

1.1. Objeto del contrato

1.2. Duración del contrato

2. Descripción de los trabajos

3. Documentación técnica a aportar.

4. Precio del contrato.

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1.1. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri hau oinarri hartuta egingo den kontratuak xede izango du Txomin Agirre kaiaren eta Santiago hondartzaren artean bidaiariak garraiatzeko zerbitzua ematea.

Zerbitzu hori zuzentzen, gainbegiratzen eta koordinatzen arituko da/dira izendatutako arduraduna(k), agiri honetan deskribatutakoaren eta garatutakoaren arabera.

1.2. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu honen xedeak hartzen duen epealdia urte batekoa da (2025eko eta 2026ko uda), eta ezingo da hortik aurrera luzatu.

Udako epealdia ekainaren 15ean hasi eta irailaren 15ean amaituko da; beraz, kontratua egutegi horren baitan exekutatuko da.

2. LANEN DESKRIBAPENA

Lizitatzaileek aurkeztu beharreko proposamenek kontuan hartu beharko dute xedean azaldutako ibilbidearen araberako bidaia egitea, eta baldintza hauek beteta:

- Zerbitzuaren denboraldia: udako denboraldia (egunak zehaztuta daude 1.2. puntuan), asteko zazpi egunetan.
- Zerbitzuaren ordutegia: Ordutegia jarraitua izango da; 10:40tik 20:20ra Txomin Agirre kaiaren irteeratik eta ekainaren 15etik abuztuaren 14ra eta 10:40tik 19:20ra Txomin Agirre kaiaren irteeratik abuztuaren 15etik irailaren 14ra. Lizitatzaileak zehaztu egin beharko du zerbitzuaren maiztasuna, eta baita ibilbideko puntuen artean eta osotara beharko diren denborak ere. Udalak eskumena izango du zerbitzuaren ordutegia aldatzeko zerbitzu batzuen eta

1. CONTENIDO DEL CONTRATO

1.1. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la prestación del servicio de pasajeros/as entre el muelle Txomin Agirre y la playa de Santiago.

Este servicio se realizará bajo la dirección, supervisión y coordinación de la persona responsable que se designe, y de acuerdo con la descripción y desarrollo realizados en el siguiente pliego.

1.2. DURACIÓN DEL CONTRATO

El plazo total de duración del objeto de la presente contratación se extiende a la temporada estival de los años 2025 y 2026, sin que quepa prórroga alguna.

La temporada estival se iniciará el 15 de junio y finalizará el 15 de septiembre por lo que la ejecución del contrato se ajustará a dicho calendario.

2. DESCRIPCION DE LOS TRABAJOS A REALIZAR

Las partes licitadoras deberán presentar las distintas propuestas que cubran el servicio de pasaje de acuerdo al itinerario descrito en este objeto del contrato, y a las siguientes condiciones:

- Temporalidad del servicio: Temporada de verano (días indicados en el apartado 1.2), los siete días de la semana.
- Horario del servicio: El horario será continuo de 10:40 a 20:20 desde la salida de Txomin Agirre kaia y desde el 15 de junio hasta el 14 de agosto, y de 10:40 a 19:20 desde la salida de Txomin Agirre kaia, desde el 15 de agosto al 15 de septiembre. La parte licitadora deberá especificar la frecuencia del servicio, así como tiempos parciales entre los distintos puntos de recorrido, y tiempo utilizado en el itinerario completo. El Ayuntamiento se

besteen premien arabera.

reserva la facultad de modificar el horario del servicio en función de las necesidades de los distintos servicios.

- Bidaia motordun itsasontzian egin beharko da, eta zehaztu egin beharko dira haren ezaugarri fisikoak eta teknikoak: zabalera, luzera, zenbat bidaiari har ditzakeen, motor mota eta lizitatzaileak egoki ikusten dituenak. Gutxienez 12 bidaiari garraiatzeko gaitasuna bermatu beharko du lizitatzaileak eta bidaia egiteko agirien jabe dela ere bai (ontziaren agiri teknikoak eta langileenak).

- El pasaje se realizará mediante embarcación a motor, teniéndose que especificar sus características físicas y técnicas: manga, eslora, capacidad, tipo motor y todas aquellas que La parte licitadora considere oportunas. Se deberá garantizar como mínimo una capacidad de transporte de 12 viajeros, y la documentación necesaria para realizar el pasaje (técnica de la embarcación y del personal).

- Zerbitzua emateko gutxieneko pertsonala: Ibaian bidaiariak garraiatzeko motordun itsasontzia gidatzeko titulazioa duen pertsona; gainera, euskarari dagokion B1 eskakizuna egiaztatu beharko du.

- Personal mínimo adscrito al servicio: Persona con titulación necesaria para pilotar un barco a motor de transporte fluvial de pasajeros/as; además, deberá certificar el perfil de euskera B1.

- Bidaiariei kobratzeko, ontziratzeko pantalanetik gertu dauden makinak erabiliko dira.

- El cobro a las personas viajeras se realizara mediante las máquinas expendedoras situadas en las proximidades al pantalán de embarque.

- Makina horiek matxuratuz gero, edo Udalak bidaiariei kobratzeko beste aukera bat eskaintzea erabakitzen badu, adjudikaziodunak kobratuko du, Zumaiako Udalaren kontura eta berak onartutako prezioetan (ordenantza fiskaletan finkatuta), inolako kontraprestaziorik gabe. Adjudikaziodunak kobratutako kopuruak Zumaiako Udalak izendatutako kontu jakin batean sartu beharko dira hilabete bakoitzaren amaieran. IBAN: 2095 5174 90 1060024873. Horrekin batera, saldutako txartelen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

- En caso de avería de estas máquinas o que el ayuntamiento decidiera ofrecer otra opción de cobro a las personas viajeras, el cobro lo realizará la parte adjudicataria, por cuenta del Ayuntamiento de Zumaia, y a los precios aprobados por el mismo (fijados en las Ordenanzas fiscales) sin contraprestación alguna. Las cantidades cobradas por la parte licitadora deberán ingresarse mensualmente en una cuenta específica designada por el Ayuntamiento de Zumaia. IBAN: 2095 5174 90 1060024873. Además, se deberá de presentar el certificado de los billetes vendidos.

- Adjudikaziodunak ezinduentzako erabilera bermatu beharko du.

- La empresa licitadora deberá facilitar el acceso a personas con discapacidad.

- Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.

  Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak

- Los rótulos, avisos, señalizaciones y resto de comunicaciones de carácter general se harán mediante un pictograma, acompañado de un mensaje explicativo en euskera.

  Si no resulta posible hacerlo mediante un pictograma, se harán en euskera cuando

edo ulergarriak direnean.

Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

- Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.

  Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin lehen hitza euskaraz egingo da. Herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea. Horrekin batera, era guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak…) euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

  Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

- Hilero, adjudikaziodunak Zumaiako Udalari txosten bat aurkeztuko dio, non hileroko zera azaltzen dela: zenbat jendek erabili duen zerbitzua, zenbat diru bildu den, zerbitzua hobetzeko proposamenak, jasotako kexak eta nola bideratu diren, etab.

- Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsulta…) administrazioaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz.

- Egindako komunikazioak hizkuntzaren

se trate de mensajes conocidos y comprensibles.

Si los dos casos anteriores no son posibles, se harán en euskara, castellano e inglés dando prioridad al euskera, previa conformidad de la administración.

- La atención a las personas usuarias se llevará cabo en condiciones lingüísticas idénticas a las que de hecho se exijan a la administración.

  De conformidad con los criterios lingüísticos aprobados por la administración, la atención se hará inicialmente en lengua vasca. Los ciudadanos podrán ejercitar en cualquier momento su derecho a la elección de lengua. Así mismo, se harán en euskera, castellano e inglés las notificaciones y comunicaciones (impresos, notas, avisos, horarios, facturas y otros documentos de tráfico), dando prioridad al euskera.

  La empresa contratada deberá garantizar que en la prestación del servicio los textos utilizados en euskera son correctos y adecuados. Para ello, los textos de amplia difusión o uso repetitivo se presentarán ante el Servicio Municipal de Euskera, que comprobará si son correctos o no; y en caso de que no lo sean, se requerirá su corrección por cuenta de la propia empresa.

- Mensualmente el adjudicatario presentará en el Ayuntamiento un informe detallando por cada mes: la afluencia de personas, el importe recaudado, propuestas de mejora del servicio, las reclamaciones existentes y como se han resuelto, etc.

- Las relaciones tanto verbales como escritas (contratos, facturas, informes, reuniones, consultas, etc.) de la empresa con la administración se ajustarán a la lengua de trabajo de ésta última, es decir, serán en euskera.

- Toda comunicación que realice hará un

erabilera ez sexista egingo du, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak adierazten duen bezala.

uso no sexista del lenguaje, conforme a lo establecido en el Decreto Ley 1/2023, de 16 de marzo, para la Igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia de género.

Zalantza administratiboak eta teknikoak egin nahi izanez gero, posta elektronikoz egin beharko dira, hirigintza@zumaiako.eus helbide elektronikora.

Las consultas para resolver dudas tanto administrativas como técnicas serán realizadas por correo electrónico a la dirección hirigintza@zumaia.eus

Zatiketa loteetan: EZ.

División por lotes: NO.

Kodifikazioa:

Codificación:

Kontratuaren xedeari dagokion CPV kodifikazioaren izendapena: **60600000-4**

Codificación de la nomenclatura CPV correspondiente al objeto del contrato: **60600000-4**

3. AURKEZTU BEHARREKO AGIRI TEKNIKOAK

Txomin Agirre kaiaren eta Santiago hondartzaren artean bidaiariak garraiatzeko zerbitzua kudeatzeko proiektu integralaren egokitzapena.

- Zerbitzuaren maiztasuna.
- Zerbitzua emateko baliabide materialak
- Horien aniztasuna.

- Egokiak izatea.
- Bitartekoen berritasuna.
- Zerbitzua emateko giza baliabideak.

- Zerbitzua emateko proposatzen den pertsonalaren egitura eta organigrama.
- Langileen prestakuntza eta gaitasuna lanpostu bakoitzarekiko erreferentzian (hizkuntzarena barne).
- Txaluparen eraikuntzaren CE ziurtagiria.

- Txaluparen nabigatzeko ziurtagiria.

- Beharrezkoak diren segurtasun elementuen ziurtagiriak.
- Uretako eta lehorreko larrialdiak gestionatzeko ezagutzak eta gaitasuna.

3. DOCUMENTACIÓN TÉCNICA A APORTAR

Adecuación del proyecto integral de gestión del servicio de personas pasajeras entre el muelle Txomin Agirre y la playa de Santiago.

- Frecuencia del servicio.
- Medios materiales para la realización del servicio.
- Diversidad de los mismos
- Adecuación de los mismos.
- Innovación de los mismos.
- Medios humanos para la realización del servicio.
- Estructura y organigrama del personal propuesto para la ejecución del servicio.
- Formación y capacitación de la plantilla referenciada al puesto cubierto (nivel lingüístico incluido).
- Certificado de construcción CE de la embarcación.
- Certificado de navegabilidad de la embarcación.
- Certificado de los elementos de seguridad aplicables.
- Conocimiento y capacidad de gestión de emergencias acuáticas y terrestres.

Indarrean dagoen araudi sektoriala betetzen duela egiaztatzeko agiriak.

Documentos que acrediten el cumplimiento de la normativa sectorial vigente.

Ontziko arduradunari eskatutako maila:

A la parte responsable de la embarcación se le

Europako Erreferentzia Markoaren B1 gaitasun maila izatea eskatuko da (edo oinarrizko ikasketak euskaraz). Maila hori agiri bidez egiaztatzeko aukerarik ez badago, Udalak elkarrizketa batekin eman beharko du oniritzia.

exigirá el nivel de competencia B1 del Marco Europeo de Referencia (o estudios básicos en euskera). En el caso de que no se pueda acreditar ese nivel con documentos, el Ayuntamiento deberá dar su aprobación mediante una entrevista.

4. KONTRATUAREN PREZIOA.

4. PRECIO DEL CONTRATO

Urte bakoitzeko adjudikazioaren oinarrizko aurrekontua 58.739,09 € da (BEZ kanpo) eta 5.873,91 € BEZa; hau da, 64.613,00 € BEZ barne.

El presupuesto anual base de licitación se fija en la cantidad de 58.739,09 € y 5.873,91 € correspondientes al IVA; por tanto, 64.613,00 € IVA incluido.

Kontratuaren balio estimatua 117.478,18 € da.

El valor estimado del contrato asciende a 117.478,18 €.

Kopuru hori hobetu dezakete lizitatzaileek, ulertuz, aurkeztutako proposamenek, adjudikatzen den kontratuaren prezioaz gain, BEZa, era guztietako tasa eta gastuak eta lizitazioaren iragarkien gastuak barne hartzen dituztela.

Estas cantidades podrán ser mejoradas por los/las licitadores/as, entendiéndose que las proposiciones presentadas comprenden además del precio del contrato y el IVA, las tasas y gastos de toda índole aplicables al servicio adjudicado, incluso los gastos de anuncios de licitación.

Prezioaren barne daudela ulertuko da adjudikaziodunak zerbitzua esandako epealdian eta ordutegian emateko diren gastu guztiak, esaterako, orokorrak, finantza gastuak, irabaziak, aseguruak, ordutegiaren barruan ardurapeko langile teknikoen desplazamenduak eta laneko denborak, dietak, aurrerakinak, tasak eta era guztietako beherapenak eta baita zerbitzua ezarriko den lekuraino txalupa eramateko sor daitezkeen gastu guztiak; horiek guztiek ezingo dute partida independente gisa eraginik izan adjudikazioko prezioan eta, ondorioz, Udalak ez du inola ere aurreko puntuan ezarritako kopurua baino handiagorik ordainduko. Portuko Agintaritzak eman beharreko baimen edo kontzesioa adjudikaziodunak ordaindu beharko du, baimena Zumaiako Udalak eskatuko duen arren.

Dentro del precio se entenderán incluidos todos los gastos que la parte adjudicataria deba realizar para el normal cumplimiento de las prestaciones dentro del periodo y horario estipulados, como son los generales, financieros, beneficios, seguros, desplazamientos y tiempo de trabajo, dietas, suplidos en horarios al personal técnico a su cargo, tasa y toda clase de descuentos, así como el transporte de la embarcación a su puntos de trabajo, incluso la botadura, sin que puedan ser repercutidos como partidas independientes del precio de adjudicación, de tal suerte que el Ayuntamiento no abonará bajo ningún concepto, cantidad superior a la que resulte de lo establecido en el apartado anterior. El importe que corresponda en concepto de autorización o concesión que deba otorgar la autoridad portuaria será por cuenta y cargo de la parte adjudicataria, si bien la misma será solicitada por el Ayuntamiento de Zumaia.

EGINBIDEA: Baldintza teknikoen agiri hau onartu da 2025eko apirilaren 16ko 937/2025 Alkate Dekretu bidez.	**DILIGENCIA:** El presente Pliego de prescripciones técnicas ha sido aprobado por Decreto de Alcaldía 937/2025 de fecha 16 de abril de 2025.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO